


EMAN INDARRA ZURE SEME-ALABEI



IPI Zaragueta
Herri Eskola **Orto**

Hezkuntza Proiektua
Proyecto Educativo



EMAN INDARRA ZURE SEME-ALABEI



Dokumentu hau Orioko Zaragueta Herri Eskolako Hezkuntza Proiektua da.

Zaragueta Herri Eskola Orioko ikastetxe publikoa da eta 2 urtetik 16 urte bitarteko neska-mutilen garapen osoaren aldeko lanean dihardu.

Gure eguneroko jardunak izaera eta ezaugarri propioak ditu. Guk dokumentu hau horien adierazgarri izatea nahi genuke.

Hezkuntza Proiektuak izaera bikoitza du: batetik, egiten den guztiaren oinarri izan behar du, eta bestetik, ikasturtez ikasturte egiten denari koherentzia eta orokortasuna eman behar dio.

Gure eskolan gurasoak eta irakasleak ikasleen garapenean parte aktiboa gara, eta gure ekarpenak koordinatuta egoten dira. Beraz, dokumentu hau denon arteko lanaren ondorioa da.

Eskola bizirik dago eta horren adierazgarri dira urtetan egin diren berrikuntza-proiektuak eta irakasleen etengabeko formazioa. Baina berrikuntza eta proiektu guztiek oinarri sendoa behar dute eta Hezkuntza Proiektuaren helburu nagusia horixe da, egunero eraikitzen denari sendotasuna ematea: zer garen eta zertara joan nahi dugun azaltzen da hemen.

Lan honen bidez gure berri izan dezazun nahi dugu.

Este es el Proyecto Educativo de Zaragueta Herri Eskola de Orio.

Zaragueta Herri Eskola es un colegio público que trabaja por la educación integral de niños y niñas de 2 a 16 años. Nuestro trabajo diario tiene una determinada personalidad, ciertas características propias y deseamos que este documento sea reflejo de las mismas.

El Proyecto Educativo de centro debe ser ambivalente. Por un lado, será la base de todo lo que se hace, y por otro, dará coherencia y globalidad al quehacer diario.

En nuestra escuela padres y madres, profesores y profesoras, somos parte activa del desarrollo de nuestras alumnas y alumnos y, por lo tanto, nuestras actuaciones deben estar coordinadas. Este documento es el resultado de un trabajo en el que hemos participado todos.

La escuela está viva y esto lo demuestran los diferentes proyectos de innovación que se han llevado a cabo estos últimos años y la formación continua del profesorado. Pero toda renovación y nuevas iniciativas exigen una base sólida, por lo que el objetivo principal de este Proyecto Educativo será el de dar solidez a lo que construyamos día a día: eso es precisamente lo que vamos a presentar, qué somos y hacia dónde vamos.

Queremos que sea un documento para que nos conozcas mejor.

1. Eskolaren Historia

Gure ikastetxea 1972an sortu zen, Orion eskola berria eraiki zenean, Abeslari kalean. Bertan Orioko eskolaumeak bildu ziren, Aiako goi zirkulo ikasleekin batera. Eskolak Juan Zaragueta jaunaren izena hartu zuen, Orion jaiotako apaiz pedagogo, filosofo eta pentsalariaren omenez.

Eskola sortu zen garaian euskal gizartean aldaketa handiak ari ziren gertatzen eta eskolak ahalegin handia egin behar izan zuen egoera berrira egokitzeko: euskarazko irakaskuntza, pedagogia-berrikuntza, gurasoen partaidetza eskolaren kudeaketan...

Egoera politikoak aukera eman zuenetik, Zaragueta Herri Eskolak bere lan-jarduna euskalduntzeari ekin zion, geroztik hori lortzea erronka handi bat izan da gure eskolarentzat. Artean irakaskuntza erabat gazteleraz ematen zen garaian, gure eskolak Gipuzkoako beste bostekin batera esperientzia bat jarri zuen martxan euskara sartzeko. Oso lan nekagarria izan zen, baina gurasoen indarrari esker, bidea ireki zen, aurrena euskara gai bezala emateko, ondoren Haur Hezkuntzan B eta D ereduak ezartzeko, eta azkenik D ereduko ikastetxe bilakatzeko.

Euskara irakasteak berrikuntza pedagogikoa ekarri zuen berekin. Haurraren heziketaren inguruko azken pentsamoldeen ildotik lan egin zen: prestakuntza-ikastaro bereziak, Unibertsitatearen aholkularitza, arte-hezkuntzaren trataera berezia...

Herriko kultur giroak ere antzeman zion eskolako lan-jarduera berriari: abesbatza, kultur txangoak, antzerkia... Kiroletan oso maila oneko taldeak izan zituen, saskibaloian eta atletismoan. Eskolako gelak herriko taldeei ireki zitzaizkien, irakastorduetatik kanpo: dantza taldea, musika-entsaioak, arabiera-ikastaroa, euskara erakusteko gau-eskolak...

1983an ikastetxe berrira pasa ziren 3. mailatik gorako ikasleak, gaur egun dugun hondartza ondoko ikastetxera. Pixkanaka, ondorengo urteetan utzi ziren herri guneko bi eraikinak.

Eta hortxe jarraitzen dugu, ingurune paregabean, gure aurrekoek zabalduak bidea eginez eta Orioko herriari kalitatezko euskal eskola publikoa eskaintzen.





Historia de la escuela

Nuestra escuela pública recibió el nombre del ilustre filósofo y pedagogo oriotarra D. Juan Zaragueta en 1972, cuando los escolares de Orio, junto con los del ciclo superior de Aia, pasaron al nuevo edificio escolar de la calle Abeslari.

Pronto llegarían grandes cambios en nuestra sociedad y la escuela tuvo que hacer un gran esfuerzo para adaptarse a las nuevas exigencias que se le planteaban: enseñanza en euskara, renovación pedagógica, participación de los padres y madres en la gestión de los centros...

Conseguir una escuela pública euskaldun ha sido uno de nuestros principales retos. Cuando todavía la enseñanza era exclusivamente en castellano nuestro centro participó en una experiencia piloto, junto con otras cinco escuelas guipuzcoanas, para empezar a impartir clases de euskara. Fue un trabajo duro en el que resultó de capital importancia el protagonismo de los padres y madres. Así se consiguieron las clases de euskara primero, la implantación de los modelos B y D después y finalmente la conversión en un centro de modelo D.

La enseñanza del euskara y en euskara trajo consigo un movimiento de renovación pedagógica que animó al profesorado de aquella época a participar de las últimas corrientes en educación: cursillos de formación, colaboración con programas de la Universidad, proyectos innovadores en educación artística...

El pueblo de Orio se benefició también de toda esta actividad: coro infantil, grupo de teatro, viajes culturales... En el ámbito deportivo se consiguieron equipos de baloncesto y atletismo que funcionaron a alto nivel. Las aulas de la escuela se utilizaron fuera del horario lectivo por numerosas agrupaciones de danza, música, clases de árabe y euskara...

En 1983 parte del alumnado pasó al edificio que ocupamos actualmente, cerca de la playa. Posteriormente se dejaron los dos edificios escolares del casco del pueblo.

Y ahí estamos, en un entorno inmejorable, siguiendo el camino que marcaron hace años y ofreciendo una escuela pública de calidad al pueblo de Orio.

2. Eskolaren Izaera

Zaragueta Herri Eskola Orioko eskola publikoa da, eta, horregatik, Udalak ardura handia du eskolarekiko; baita, Hezkuntza Sailak ere, Euskal Herriko hezkuntza sarearen barruan eskola publikoa baita, berez, bere-berea.

Zaragueta herriarentzako eskola irekia eta hurbila da, tratu familiarra eta giro atsegina eskaintzen duena; eta ingurune zoragarrian kokatuta dago.

Eskolaren ezaugarriak:

Euskalduna. Gure ikastetxea, herria bezalaxe, euskalduna da, beraz euskara da gure eguneroko bizitzako eta ikasketetako hizkuntza nagusia. Eta, jakina, euskal kultura eta ohiturak bultzatzen dira.

Inklusiboa. Ikasle guztiak beren gaitasunak garatzeko aukera izan dezaten, eskolak lantzen duen hezkuntza ikasleen ezaugarrietan oinarrituta dago, irakaskuntza-ikaskuntza prozesu egoki baten barruan. Premia bereziak dauzkaten ikasleen beharrei era egokian erantzuten saiatzen da.

Hezkidetzagilea. Hezkidetzaren naturaltasunez bizitzen ahalegintzen da, sexuagatik bereizketarik izan ez dadin, nork bere sexualitatea, eta besteena, onartzeko. Sexu-heziketako tabuak gainditzea eta hizkuntza ez sexistan hezteko dugu helburu.

Anitza. Pluralismoa bultzatzen duen eskola da, ume guztien izaera, iritziak eta agerpenak onartzen dituena. Ikasleek


informazio mota ezberdinak modu objektibo batez jaso ditzaten saiatzen da, horrela, pertsona kritikoak heziz.

Berritzailea. Eskolaren jardueran, irakasleen prestakuntza prozesu iraunkorra da. Irakasleek egokitzen joan behar dute, garatzen ari diren metodologietara, teknologia berrietara eta inguruko errealitate sozialera, eguneroko lanaren inguruan hausnarketa eginez, kalitatezko irakaskuntza lortzeko.

Eleanitza. Etengabe garatzen ari den gizartearen bizitzeko, bertako eta kanpoko hizkuntzak eskaintzen ditu. Ingelesa 4 urtetik aurrera lantzen da.

Gaztelera Lehen Hezkuntzako aurreneko mailan hasten gara lantzen. Hizkuntzen alderdi komunikatiboak lehenesten ditugu, batez ere txikienekin.

Akonfesionala. Gure ikastetxea, ideologiari dagokionez, politika eta erlijio alorretan anitza da eta hala izan nahi du.



Identidad de la escuela

Zaragueta Herri Eskola es el colegio público del municipio de Orio, con lo que ello supone: el Ayuntamiento es parte importante en el ámbito escolar, el ser público implica que, por lo menos, el mantenimiento del centro es de su incumbencia y es la escuela propia del Departamento de Educación del Gobierno Vasco.

Abierto al pueblo y muy cercano, ofrece un trato familiar y un ambiente cordial. Está ubicado en un entorno envidiable.

Características:

Euskaldun. Nuestro centro educativo es euskaldun, como el Pueblo. Por lo tanto será el euskara la lengua vehicular que impere en las relaciones cotidianas y en los procesos de aprendizaje. Se potencian también las costumbres y la cultura vascas.

Inclusiva. Somos una escuela que basa su educación en las características de los alumnos y alumnas, para que puedan desarrollar todas sus capacidades a través de un proceso de enseñanza-aprendizaje adaptado a las mismas. Tratamos de responder adecuadamente al alumnado con necesidades educativas especiales.

Coeducadora. Vivimos la coeducación con naturalidad, tratando de evitar la discriminación por razón de sexo y asumiendo la sexualidad propia y la de los otros. Primamos una educación que supere los tabúes sexuales y que utilice el lenguaje de manera no sexista.

Plural. Queremos una escuela plural que asuma las aportaciones, personalidades y

opiniones de todas las niñas y los niños. Intentamos que reciban la información de manera objetiva y educarlos como personas críticas.

Renovadora. Entendemos la formación del profesorado como un proceso permanente. El profesorado debe adecuar la metodología a las nuevas técnicas y la realidad social que nos rodea, reflexionando sobre el trabajo diario para conseguir una enseñanza de calidad.

Plurilingüe. Ofrecemos diferentes recursos lingüísticos para poder vivir en una sociedad cada vez más dinámica.

Introducimos el castellano, en el primer curso de Educación Primaria. Y l@s niñ@s comienzan a relacionarse con el inglés desde los 4 años.

Damos prioridad a los aspectos comunicativos de las distintas lenguas, sobre todo en l@s más pequeñ@s.

Aconfesional. Ideológicamente, tanto en lo político como en lo religioso nuestra escuela es (y así quiere ser) plural.



3. Oinarrizko Helburuak

- **Ikasle guztiek bi hizkuntza ofizialak praktikan ezagutzea**, eta euskararen erabilera bultzatzea. Era berean, eleaniztasunak dituen onurak antzematea eta hirugarren hizkuntzarekiko begirunea eta interesa sortzea.
- **Irakasleak etengabeko prestakuntzan jarraitzea**, gizartean gertatzen ari diren aurrerapenak direla-eta.
- **A21. Ikastetxeak, ingurumen eta herriaren alde lan egitea. Eskolan eta herrian ingurumen arazoak gure ikasleek ezagutu ditzatela eta hobekuntzarako proposamenak adostu eta martxan jartzea.**
- **Orioko Curriculum landuz**, gure herria, historia eta hizkuntza ezagutzea eta eskola- komunitate osoa haren partaide sentiaraztea.
- **Irakasleek, gurasoek eta ikasleek ikastetxearen kudeaketa parte hartzeko duten eskubidea sustatzea eta bermatzea.**
- **Gizartean ematen diren zientzia-berrikuntzak eta teknologia - aldaketak lehenetsuz tratatzea**, ikasleen irakaskuntza-prozesuan integratuz.
- **Ikaslearen garapen eta nortasun integrala bermatzea:** norbanakoarena eta soziala. Batetik, gaitasun eta jarrera kritikoa sustatzea, balore demokratikoetan oinarrituta. Bestetik, elkarbizitzako baloreetatik abiatuz aniztasunaren errespetuan hezte (berdintasuna, elkartasuna...).
- **Norbere sexualitatea eta besteena onartuz**, sexu-heziketako tabuak gainditzea eta hizkera ez sexistan hezte.
- **Errespetuzko jarreraren hezea:** bai pertsonentzat, bai inguru-menarentzat eta baita baliabideentzat ere.
- **Eskola inklusiborantz goazela kontuan izatea aldiro-aldiro.** Eskolak, hezkuntza-komunitatea den heinean, bertako partaide guztiei beren gaitasunak garatzeko aukera ematea, inor baztertu gabe. Aniztasuna (edozein arlotan dela ere) aberastasun bezala bitztea.



Objetivos básicos

- **Conocimiento práctico de las dos lenguas oficiales**, impulsando la utilización del euskara. Reconocer las ventajas de ser plurilingüe y crear interés y respeto por una tercera lengua.
- **Actualizar los conocimientos del profesorado de manera continuada**, para poder responder a todos los cambios y adelantos de la sociedad.
- **A21. Continuar trabajando para que el centro sea un modelo de buenas prácticas a favor del medio ambiente y del pueblo. Que el alumnado conozca los problemas medioambientales de la escuela y del municipio y acuerde y lleve a cabo propuestas y alternativas de mejora de los mismos.**
- **Conocer nuestro pueblo, su historia y su lengua** y que toda la comunidad escolar se sienta parte del mismo, trabajando entorno al proyecto **Orioko Curriculum**.
- **Promocionar y garantizar la participación** de padres, madres, profesor@s y alumn@s en la gestión del centro.
- **Tratar prioritariamente la renovación científica y tecnológica** que se está dando en la sociedad actual e integrarla en los procesos de enseñanza-aprendizaje.
- **Garantizar la educación integral, individual y social**, de las alumnas y alumnos. Por una parte, impulsando su capacidad y actitud crítica, basándose en valores democráticos, y por otra, educando en el respeto a la diversidad, partiendo siempre de valores de convivencia.
- **Superar los tabúes de la educación sexual** y educar en un lenguaje no sexista, aceptando nuestra propia sexualidad y la de los demás.
- **Educar en valores de respeto** hacia uno mismo, hacia el medio ambiente y hacia los recursos materiales que poseemos.
- **Caminamos hacia una escuela inclusiva**. La escuela, comunidad educativa, debe ofrecer a todos sus componentes la posibilidad de desarrollar sus capacidades. Vivir la diversidad como riqueza.



4. Pedagogia ildo

Gure pedagogia ildoa ondoko puntuotan oinarritzen da:

- **Saiatzen gara ikaslea bere dimentsio afektibo-emozionalean, sensorial-motorean, harremanezkoan eta kognitiboan** garatu dadin. Txiki-txikitatik alderdi afektibo-emozionalak baldintzatzen du haurren garapena, horregatik lehenetsuna du gure lanean.
- **Ikaslea aktiboki inplikatzeko dugu** bere ikaskuntza-prozesuan eta bera da jardueraren abiapuntua.
- **Adin desberdineko ikasle taldeen aberastasunaz baliatzen gara** ikaskuntza-prozesuan. Txiki-ek handiengandik ikasten dute, eta zaharragoak jabetu egiten dira dakitenaz gazteagoen aurrean, kontzienteagoak egiten dira.
- **Familiekin bat egiten dugu** ikasleen garapen-prozesuan lagungarri izateko. Bestalde, familia osoa da protagonista eskolako bizitzan.
- **Lantzen diren gaien funtzionaltasuna zaintzen dugu.** Gizartean dauden kezkek ekarri, bat egiten dugu gaur egungo gizarte-arekin.
- **Ikaslea da bere garapenaren protagonista nagusia**, eta irakaslea laguntzaile da ikaslearen ikaste-prozesuan eta garapenean.
- **Ikasteko era: ikerketa, manipulazioa, tresnak bilatzea, informazioa kudeatzea...** Gaur egungo gizartean informazioa guztion eskura dugu eta irizpide garbiak eduki behar dira aukeratzeko garaian, horregatik iritzi kritikoa sustatzen ahalegintzen gara.
- **Elkarrekin sortzen diren gatazkak hitz eginez konpontzen ditugu.** Elkarrenganako errespetua zaindu beharra, besteen ikuspuntuak ulertaraztea...
- **Lan kooperatiboak dituen onurak geureganatzen ahalegintzen gara;** hau da, elkarrekin lan egitea, denon artean (nork bere ahalmenaren arabera) helburu jakinetara iristeko.

Estilo Pedagógico

El fundamento de nuestra línea pedagógica se basa en los siguientes puntos:

- **Trabajamos teniendo en cuenta en el alumno o alumna su dimensión afectivo-emocional, sensorio-motora, social y cognitiva.** Se sabe que la dimensión afectivo-emocional condiciona el desarrollo de la niña o niño desde pequeño y por eso le damos prioridad en nuestro trabajo.
- **Implicamos activamente al alumno o alumna** en su proceso de aprendizaje, siendo el punto de partida de cualquier actividad.
- **Aprovechamos la riqueza de la heterogeneidad de los grupos de alumnas y alumnos de diferentes edades.** Las niñas y niños de menor edad aprenden de los mayores y éstos, a su vez, se hacen más conscientes de lo que saben.
- **Compartimos con la familia** la educación de las alumnas y alumnos. La familia es protagonista en la vida de la escuela.
- **Cuidamos el aspecto funcional de los temas que tratamos.** Traemos a la escuela las dudas, sucesos, expresiones culturales... de la sociedad actual para formar parte de ella.
- **La alumna o alumno es el protagonista principal de su desarrollo** y el profesor o profesora es un ayudante en ese proceso de aprendizaje.
- **En el proceso de aprendizaje: se investiga, se buscan instrumentos, se gestiona la información...** En la sociedad actual la información es muy asequible y hace falta unos criterios claros para poder tratarla adecuadamente. Por ello intentamos potenciar el espíritu crítico.
- **Tratamos de solucionar los conflictos que surgen a diario a través del diálogo.** Cuidamos el respeto mutuo, entender el punto de vista ajeno.
- **Intentamos asumir las ventajas del trabajo cooperativo**, entendido éste como un trabajo de grupo donde participan todos (según sus capacidades) para conseguir un fin común.



DBH Zaragueta Herri Eskolan

2013/2014 ikasturteetik aurrera **Zaragueta Herri Eskola Gipuzkoako lehen Ikastetxe Publiko Integratua (IPI) da.** Gure ikasleek derrigorrezko hezkuntzaren hiru etapak: (HH, LH eta DBH) Orion eskola publikoan egin ahal izango dituzte.

La ESO en Zaragueta Herri Eskola

Desde el curso 2013-2014 **Zaragueta Herri Eskola es el primer Centro Público Integrado de Guipúzcoa (CPI).** Así, los alumnos y las alumnas podrán cubrir las tres etapas de enseñanza obligatoria (EI, EP y ESO) en el mismo centro público de Orio.

5. Zerbitzuak



Hartzaindegia

Zerbitzu hau goizez eta arratsaldez eskaintzen da. **Eskolako familia guztiek erabili dezakete.** HH2ko ikasleentzat doan da.

Garraioa

Autobus-zerbitzua goiz eta arratsaldez ematen da, eta zaintzaileak daude ikasleez arduratzeko. **Zerbitzua erabat doakoa da.**



Jangela

Jangela-zerbitzuan, bazkaltzeaz gain, higiene eta osasun-ohiturak lantzen eta zaintzen ditugu.

Haur txikientzat siesta egiteko aukera eskaintzen da.

Eskolaz kanpoko ekintzak

Ekintza hauek eskolako guraso-elkar-teak antolatzen du. **Batez ere, kirol eta kultur jarduerak izaten ditu.**

Servicios



Guardería

El servicio es de mañana y tarde. **Está disponible para todas las familias de la escuela.** Es gratuito para los alumnos de preescolar 2 años.

Transporte

El servicio de transporte es de mañana y tarde. **Es gratuito.**




Comedor

Además del servicio de comedor trabajamos hábitos de salud e higiene.

Extraescolares

La Asociación de Padres y Madres se encarga de estas actividades. **Organiza principalmente actividades deportivas y culturales.**

6. Antolaketa / Organización



KLAUSTROA CLAUSTRO





EMAN INDARRA ZURE SEME-ALABEI

Tel. 943 89 40 52 E-posta: 012137aa@hezkuntza.net www.zaragueta.net

